

APIRILA
2026

BEASAINGO UDAL
ALDIZKARIA

#50



Beasain Udalak

BEASAINDIK

ARGITARATZAILEA: BEASAINGO UDALA • LG SS-00403-2016

Beasain festaz blai: badatoz Loinatz Jaiak 2026!



*Del 15 al 24 de mayo, Beasain celebra
sus fiestas fusionando tradición y vanguardia
con actividades para todas las edades.*



Etorkizuneko Maria
Arana Gaiztarro parkea
diseinatzeko parte-hartze
prozesua

04



Formación del personal
de hostelería para
unas fiestas libres de
violencia machista

08



★
Zuen
alkatea

Leire Artola Ugalde
BEASAINGO ALKATEA

Jaiak, gure izatearen islada

Egunen joan etorrian, badira data batzuk bihotzean iltzatuta ditugunak. Beasaindarrentzat, Loinatz jaiak ez dira egutegiko egun soil batzuk; gure nortasuna elikatze eta elkarrekin egoteko beharrezko dugun arnasgunea dira. Aurten ere, ilusioz gainezka gatoz, herria kolorez eta doinuaz janzteko prest.

Alkate gisa, harrotasunez begiratzaren diot gure herriari jai hauek. Egitaraua tradizioaren eta berrikuntzaren arteko oreka bat da, baina horren azpian badago zerbait sakonagoa: auzolana. Jai hauek ez lirateke ezer izango herriko elkarte, boluntario eta langileen bultzadarak gabe. Zuek zarete festaren motorra eta Beasain distirarazten duzuenak.

Baina jaiak hausnarketarako bide ere badira. Gure kaleetan euskara izan dadila nagusi, gure hizkuntzak batzen gaituelako. Eta batez ere, aldarrikatu nahi dut jaiak segu-

ruak eta askeak izan behar dutela denontzat. Ildo horretan, aurtun ekimen garrantzitsu bat jarri dugu martxan Berdintasun sailetik: herriko tabernariei formakuntza berezia eman diegu indarkeria egoerak identifikatzeko eta horien aurrean nola jokatu jakiteko. Establezimendu hauetan ikusgai egongo den bereizgarriari esker, bezeroek argi jakingo dute gune seguru eta berdinzale batean daudela, laguntza emateko prest. Errespetua eta berdintasuna ez dira aukera bat, gure bizikidetzaren oinarria baizik. Izan gaitezen denok elkar zaintzen duen komunitate horren parte.

Orain, eguneroko kezkak alde batera utzi, gure artean ez daudenak gogoratu eta gozatu dezagun mezezi dugun bezala. Beasain bizirik dagoelako, eta zuek zaretelako haren bihotza.

Gora Loinatz jaiak! Gora Beasain!

Las fiestas, reflejo de nuestra identidad

Las fiestas de Loinatz son mucho más que una cita en el calendario; son el espacio donde reforzamos nuestra identidad y el orgullo de ser beasaindarras. Como alcaldesa, es un honor ver cómo nuestras calles se llenan de vida, combinando nuestras tradiciones más queridas con nuevas propuestas que invitan a la participación de todas las generaciones.

Este ambiente especial no surge de la nada; es el fruto del trabajo incansable de asociaciones, personas voluntarias y trabajadores municipales.


Sin embargo, la alegría debe ir de la mano del compromiso. Queremos unas fiestas donde el euskera sea nuestra melodía natural y donde el respeto y la igualdad sean innegociables. Este año contamos con una nueva iniciativa dedicada a la formación para hosteleros en la identificación y respuesta ante situaciones de violencia machista. Los locales participantes contarán con un distintivo visible, garantizando así espacios seguros y preparados para prestar ayuda. Debemos construir, entre todas y todos, un entorno seguro donde nadie se sienta excluido.



¡Vive las Loinatz jaiak!

Beasain celebra las Loinatz Jaiak 2026 del 15 al 24 de mayo con un programa que fusiona tradición y vanguardia. El Ayuntamiento ha diseñado actividades para todas las edades, destacando propuestas para jóvenes como la Holi Festa, talleres de circo y talo, y conciertos de grupos locales.

La programación incluye novedades tecnológicas como un videomatón 360° y un espectáculo renovado de drones, manteniendo a su vez las raíces con deporte rural, la bajada de Mari, la tamborrada y el tradicional reparto de caracoles y morcilla el lunes de fiestas. El deporte (pelota, pala, ajedrez), la gastronomía y la cultura vasca serán los ejes de estas fiestas inclusivas y respetuosas. Los más pequeños disfrutarán de parques infantiles y, como broche final el 24 de mayo, del Encuentro de Gigantes y Cabezudos del Goierri.



Mariren jaitsiera
zuzenean ikusi
Ver la bajada de
Mari en directo



Loinatzak hartuko dute Beasain maiatzaren 15etik 24ra


Beasaingo Udalak adin tarte guztiei zuzendutako egitarau oparoa prestatu du, herriaren nortasuna aldarrikatuz eta sormenari ateak zabalduz.



AZAROA
2025



Jaietako
egitaraua
Programa
de fiestas



B adatoz beasaindarrok urteko egutegian azpimarratuta ditugun egunik berezienak: Loinatz jaiak. Maiatzaren 15etik 24ra bitartean, herria ilusioz eta emozioz betekoda, belaunaldi guztiak elkartuko dituen ospakizun partekatu honetan. Jaiak beasaindertasuna sentitzeko eta erakusteko aukera paregabean dira, gure ohiturak eta komunitatearen indarra harrotasunez bizitzeko garaia.

Tradizioa eta berrikuntza, eskutik helduta

Aurtengo egitarauan, ahalegin berezia egin da ohiko jarduera tradizionalak proposamen berrieekin uztartzeko. Helburua argia da: adin tarte guztiek jaietan euren lekua aurkitzea eta denei zerbait berria eskaintzea.

Programaren bizkarrezurra diren ekitaldiak ez dira faltako: Loinatzetako zapia lepoan eta herriko bandera balkoietan, maiatzaren 15ean emango zaio hasiera ofiziala festari Danbatekoarekin. Ondoren, Mariren jaitsiera hunkigarria etorriko da, herriko jaietako ikur nagusietako bat beste behin zuzenean jarraitu ahal izango dena.

Gazteentzako eta nerabeentzako espazioak

Gazteek indar handia izango dute aurtengoan, sormena eta

parte-hartzea sustatzen duten jarduerekin:

Holi Festa: Kolorez eta musikaz betetako hitzordua Iturralde plazan, maiatzaren 23an.

Zirko Tailerra: 12-17 urte bitartekoentzat, Zirkum Zirko eskolaren eskutik.

Talo Tailerra: Gastronomia tradizionala gazteengana hurbiltzeko aukera.

Kontzertu eskaintza zabala: Neomak, Maskak, Zutik erromeria, Puro Relajo, DJ Bull, Muxutruk, Zinema paradise, Nafar jotak eta Pho-Bo eta IC&Hodi herriko taldeek girotuko dituzte arratsalde eta gauak.

Belaunaldiartekotasuna sustatzen

Adin guztietako herritarrak elkartzeko, proposamen digitalak eta herrikoiak tartekatu dira. Alde batekin, teknologia berriek lekua izango dute 360 graduko bideomatoiarekin eta dron ikuskizun ikusgarriekin. Bestetik, sustraiei helduko zaie Gynkana Baserri euskal joko tradizionalarekin, non familia osoak parte hartu ahal izango duen.

Jaiak ez lirateke berdinak izango arlo ezberdinetako hitzordu kuttunik gabe:

Gastronomia: Txistor-jana, elkarleen arteko XLVIII. sukaldaritza lehiaketa eta prozesio ondorengo barraskilo eta odolki dastaketa.

Kirola: Eskuz binakako pilota, emakumezkoen pala txapelketa, xake txapelketa, toka eta igel txapelketa eta herri-kirol jaialdia.

Kultura eta Dantza: Udalbatzaren eta haurren sokadantza, haur eta helduen danborradak, gaiteroak, joaldunak eta XXIV. Dantza Topaketa.

Herri-giroa: Koadrilen eguna, bertsolari saioak, esnadeiak, txarangak eta elektrotxaranga, mozzorro eguna eta azoka berezia.

Txikientzako gozamena

Haurrek puzgarritz betetako parkeak izango dituzte egunero. Erraldoiak eta buruhandiak ere egunero aterako dira kalera. Jaietan itxiera gisa, maiatzaren 24an, Goierriko Erraldoi eta Buruhandien Topaketa ospatuko da, eskualdeko talde ugarirekin.

★ Adin guztietako herritarrak elkartzeko, proposamen digitalak eta herrikoiak tartekatu dira 360 graduko bideomatoia, dron ikuskizuna edota Baserri Gynkanarekin.

Maria Arana Gaiztarro parkea: guztion artean loratuko den espazio berria



Partehartzea

04

BEASAINDIK

Beasaingo Udalak hausnarketa prozesu ireki eta aberasgarria jarri du martxan parkea eraberritzeko. Helburua garbia da: herritarren beharretara egokitutako gune inklusibo, irisgarri eta bizia diseinatzea, beasaindar guztien iritzia kontuan hartuz.

Maria Arana Gaiztarrok bere garaian herriari emandako lursailak arnasmune berde bat eman zion Beasaini. Hamarkadetan zehar, jolaserako eta topaketarako gunea izan da, baina denboraren pasak bere lorratza utzi du eta gaur egun berritze sakon baten premia du. Udalak, ordea, ez du aldaketa hau bulegoetan bakarrik diseinatu nahi; parkearen etorkizuna herritarrekin batera idatzi nahi du.

Igogailua irisgarritasuna bermatzeko

Proiektu honen bizkarrezurra partaidetza da. Udalaren asmoa herritarrekin erabateko lotura lortzea da, parkea nola irudikatzen dugun guztion artean erabakitzeke. Ez da soilik obra bat egingo; Beasainek dituen balioak —inklusioa, berdintasuna eta mugikortasuna— txertatuko dira proiektuan.

★ "Irisgarritasuna hobetuko duen igogailua jarriko da Kale Nagusia eta Esteban Lasa kalea lotzeko"

Berrikuntza nagusienetako bat igogailu berria izango da. Elementu honek Kale Nagusia eta Esteban Lasa lotuko ditu, oztopo fisikoak gaindituz eta auzokide guztiei joan-etorriak erraztuz.

Denon artean sortutako gunea

Parke berriak topagune izan nahi du, jatorri eta kultura ezberdinetako beasaindarrek elkar ezagutzeko eta gozatzeko lekua. Horregatik, arreta berezia jarriko da baztertutako egon daitezkeen kolektiboen eta baita haur eta gazteengan ere, txikitatik partaidetzaren kultura ikas dezaten.

Parte-hartze prozesuaren faseak

1

Barne lanketa

Erabiltzaile profilak eta beharrak identifikatu.

2

Diagnosia

Herritarren iritzia jasoko dira galdetegi baten bidez.

3

Ko-sorkuntza saioa

Ideiak borobiltzeko tailerrak.

4

Ondorioak

Jasotako guztiarekin behin-betiko proiektua osatuko da.



El parque Maria Arana Gaiztarro se renovará de la mano de las y los beasaindarras

El Ayuntamiento de Beasain ha puesto en marcha un proceso participativo para transformar el parque Maria Arana Gaiztarro. El objetivo es convertir este emblemático espacio, actualmente un tanto deteriorado, en un lugar moderno, inclusivo y accesible para todos y todas.

Puntos clave del proyecto:

Diseño compartido: Se busca la implicación directa de las y los vecinos para que el parque responda a sus necesidades reales.

Mejora de la accesibilidad: Se construirá un nuevo ascensor para conectar la Kale Nagusia con Esteban Lasa, eliminando barreras arquitectónicas.

Convivencia: El espacio fomentará el encuentro entre personas de diferentes edades y culturas, con especial atención a la infancia y la juventud.



Iritziak jaso nahi ditugu

Diagnosi fasea martxan dagoen honetan, herritar desberdinei elkarrizketak egiten hasi gara eta zure iritzia jaso nahi dugu. Horretarako, QRaren bitartez irekiko den galdetegia betetzea eskatzen dizugu.

Parte-hartze aktiboa

Prozesu honen muina eta unerik garrantzitsuenak ko-sorkuntza tailerrak izango dira. Ekainean zehar egingo diren saio hauetan, herritarrek zuzenean parte hartu ahal izango dute diseinuan.

Udalak dei egiten die beasaindar guztiei —elkarteei, banakako herritarrei eta interesatu guztiei— tailer hauetan parte har dezaten. Zure iritzia funtsezkoa da parkea herriaren isla izan dadin.

Gorde datak!

Tailerrak **ekainaren 10 eta 11an** izango dira, **arratsaldez eta parkean** bertan. Zatoz eta eman forma Maria Arana Gaiztarro parke berriari!

Queremos conocer tu opinión

A través del QR puedes abrir un cuestionario para trasladarnos tu punto de vista.

¡Participa en el diseño!

El proceso, guiado por la empresa Aztiker, incluirá talleres de co-creación en junio. El Ayuntamiento anima a toda la ciudadanía a aportar sus ideas en estas sesiones para decidir juntos el futuro de este pulmón verde.

Talleres en junio: Se celebrarán los días 10 y 11 de junio por la tarde, en el propio parque.

Galdetegia bete
Rellena el cuestionario





Oinezkoen lehentasuna indartzeko lanak Nafarroa etorbidean

Udala oinezkoen mugikortasuna sustatzearen alde agertuz, Nafarroa etorbideko 1. zenbakiaren eta Barrendain plazaren arteko tarte egokitu du espazioaren erabilera erreala hobetzeko asmoz.

Nafarroa etorbideko zati honetan oinezkoen nagusitasuna argiago adierazteko lanak amaitu dira. Nahiz eta teoriarik oinezkoentzako lehentasunezko gunea izan, lehengo zoladurak eta itxurak ez zuten oinez ibiltzera gonbidatzen, eta nahasmena sor zezaketen ibilgai-luen eta pertsonen artean.

Hori zuzentzeko, **zoladuraren azalera aldatu da**, alboetako espaloien formari jarraipena emanez. Horretarako, zenefak txertatu eta margoketa lanak egin dira, inguruko espaloien antzeko koloreak erabiliz. Aldaketa estetiko honek helburu praktikoa du:

eremuaren **irakurketa bisuala hobetzea**, gidariekin eta oinezkoekin berehala identifikatu dezaten gunearen izaera. Esku-hartzeak garajeetarako sarbideak eta bizikleten igarotzea bermatzen baditu ere, oinezkoen nagusitasuna da orain elementu nagusia.

Refuerzo de la prioridad peatonal en Nafarroa etorbidea

El Ayuntamiento ha adecuado el tramo de Nafarroa etorbidea comprendido entre el número 1 y Barrendain plaza para potenciar su carácter peatonal. Mediante el cambio de pavimento, la inserción de cenefas y el uso de colores similares a las aceras colindantes, se ha buscado unificar visualmente el espacio y fomentar el paseo. La actuación mantiene el acceso a garajes y el paso de bicicletas, pero subraya visualmente la prioridad de los viandantes para garantizar una convivencia más segura y funcional.

Beasaingo sormena kalera irten zen

III. Arte Egunarekin

Urbietan zentroko ia hogeita hamar artistak beren lanak ikusgai jarri zituzten Erauskin plazan, giro eguzkitsua eta arrakastatsua.

Joan den apirilaren 19an, Beasaingo Erauskin plaza arte-galeria ireki bihurtu zen **III. Arte Eguna** ospatzeko. Goizean zehar, Urbietan arte zentroko **35 artista inguruk** urtean zehar egindako lanak erakutsi zituzten bertan kokatutako postuetan. Ekimenaren helburu nagusia tailerretan landutakoa bistaratzea, kalera ateratzea eta herritarren aurrean balioan jartzea izan da.

Erakusketan pintura, zeramika eta argazkigintza lanak egon ziren ikusgai, batez ere herriko hiru elkarrekin eskutik: **BEAR pintura elkarteak, Zeramika tailerra eta Argizpi argazkizale elkarteak**. Ikusleek zuzenean sormenaz gozatzeko aukera ere izan zuten karikaturgile bati esker edota buztinarekin probak eginez. Eguraldi eguzkitsua lagunduta, jendetza hurbildu zen postuetara, eta **Goierriko talogileek** girotu zuten eguerdira arte luzatu zen jardunaldi arrakastatsua.



Éxito del IIIº Arte eguna

Beasain celebró el pasado 19 de abril la III edición del **Arte Eguna** en la plaza Erauskin. Cerca de **35 artistas** del centro Urbietan, junto a asociaciones como BEAR, Argizpi y el taller de cerámica, mostraron sus trabajos de pintura, cerámica y fotografía en una mañana radiante. El evento, que busca poner en valor el trabajo realizado en los talleres municipales, contó con un caricaturista y la ocasión de elaborar con arcilla cerámica, y la presencia de los talogileak de Goierri, logrando un gran éxito de asistencia.



Udaltzaingoa segurtasuna eta prebentzioaren alde lanean

Patinete elektrikoen gaineko kontrolak zorrotzu dira eta Loinatz jaien atarian prebentzio hitzaldiak eskainiko dituzte ikastetxeetan

Beasaingo Udaltzaingoa tinko jarraitzen du herritarren segurtasuna bermatzen, bai eguneroko zirkulazioan, bai jai giroari begira. Herritarren kexei erantzunez, MPI (Mugikortasun Pertsonaleko Ibilgailuak) deiturikoen gaineko zaintza areagotu dute. Poliziak ikusarazi nahi du kexak jaso ez ezik, neurriak hartzen dituela oinezkoen arriskua murrizteko.

Izan ere, joan den urtarrilaren 28an argitaratutako 56/2026 Errege Dekretuak araudi zorrotzagoa ezarri du. Orain, patineteek modelo-ziurtagiria, Ibilgailuen Erregistro Nazionalen inskripzioa, identifikazio-etiketeta eta erantzukizun zibileko aseguruia izan behar dituzte derrigor. Azken hilabeteetan, Udaltzaingoa hainbat patinete geldiarazi eta immobilizatu ditu, baimendutako 25 km/h-ko abiadura gainditzeagatik edo asegururik ez izateagatik. Udaltzaingoa ohartarazi du arau-hauste hauek ondorioak dituztela eta zaintza lanetan jarraituko dutela.

Prebentzioa eta babesa Loinatz jaietan

Loinatz jaiak ate joka daudela, Udaltzaingoa ikastetxeetara joko du DBHko 3. mailako ikasleei zuzendutako saioak eskaintzera. Agente tutorearen eta Ertzaintzaren bidez, honako gaiak landuko dituzte:

- Arriskuen prebentzioa: Alkoholaren eta drogen kontsumoa, sumisio kimikoa eta lapurreten aurreko jarraibideak.
- Gatazken kudeaketa: Borrokak saihesteko eta egoera horietan nola jokatu azaltzeko jarraibideak.
- Etxera itzulera zaintza: Udaltzaingoa aurten ere martxan jarriko du zerbitzu berezi hau, gazteei eta, batez ere, emakumeei segurtasun handiagoa eskaintzeko etxera bidean.

Udaltzaingoa refuerza la vigilancia y la prevención

Se intensifican los controles de patinetes eléctricos y se impartirán charlas de concienciación en centros escolares ante la llegada de las Loinatz jaiak.

Tras las quejas ciudadanas por la velocidad de los VMP, la Policía Municipal de Beasain ha intensificado su vigilancia para garantizar la seguridad de los peatones. Bajo el nuevo Real Decreto 56/2026, los patinetes deben estar certificados, registrados y contar con seguro de responsabilidad civil. Durante el último mes, se han inmovilizado vehículos por carecer de seguro o superar los 25 km/h. Udaltzaingoa mantiene su compromiso de sancionar estas infracciones para reducir riesgos.

Charlas preventivas en colegios

Como es habitual, en estas fechas se realizarán charlas preventivas para alumnos de 3º de la ESO. Agentes tutores y Ertzaintza ofrecerán pautas sobre la prevención en el consumo de sustancias, sumisión química y sobre robos o peleas. Además, se confirma que este año volverá a activarse el servicio de "vigilancia de retorno a casa" para ofrecer mayor seguridad a jóvenes y mujeres durante las noches de fiesta.



LOINATZ JAI SEGURUAGO ETA BERDINZALEAGOEN ALDE

LOINATZ JAIK MÁS SEGURAS E IGUALITARIAS

Gure herriko jaiak gero eta berdinzaleagoak eta seguruagoak izan daitezen eta herritar zein eragile guztiak sentsibilizatzeko asmoz, indarkeria matxistaren aurkako lanketa egingo da herriko ostalariekin.

Con el objetivo de construir una sociedad más equilibrada, se llevará a cabo una iniciativa para hacer frente a la violencia machista en contextos festivos.

Zergatik parte hartu?

¿Por qué participar?

Ostalarien rola funtsezkoa da arriskuak identifikatzeko eta nola jokatu jakiteko.

El rol de las y los hosteleros es clave para identificar riesgos y saber cómo actuar.

Prestakuntza eta sentsibilizazioa Emaginekin Formación y sensibilización

Maiatzak 6 de mayo

9:30 – 11:30

**udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa
Salón de Plenos del Ayuntamiento**

Zer ikasiko dugu?

¿Qué aprenderemos?

- ✓ Erasoak identifikatzea
Identificación de agresiones
- ✓ Prebentzio-tresnak eta esku hartzeko jarraibideak
Herramientas de prevención y pautas de intervención
- ✓ Biktimen arreta, laguntza eta bideratzea hobetzea
Mejora en la atención, ayuda y derivación de víctimas

Amaitzean, "Espazio Segurua" bereizgarria emango zaie parte hartzen duten establezimenduei.

Al finalizar entrega del distintivo "Espacio Seguro" para los establecimientos participantes.

EGIN EZAZU ZURE LOKALA ESPAZIO SEGURU ETA BERDINZALEA!

¡HAZ DE TU LOCAL UN ESPACIO SEGURO E IGUALITARIO!

